Azpeitiko Udala

AZPEITIKO KIROL PATRONATUAK KIROLDEGIKO KANPOKO PISZINAKO KANTINAREN JABARI PUBLIKORAKO ERABILERA PRIBATIBORAKO ADMINISTRAZIO-BAIMENA EMATEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN ORRIAK (440K)

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

Emakida SPKLn jasotako prozeduraren bidez izapidetuko da, eta kontratuaren xedea honako hau izango da: Azpeitiko Kirol Patronatuak Azpeitiko kiroldegiaren kanpoko igerilekuko kantinaren gaineko administrazio-emakida ematea, erabilera, aprobetxamendu publikoa eta ustiapena okupatzeko. Horretarako Azpeitiko Kirol Patronatuak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 31 artikuluaren baitan, Azpeitiko Udalarekin hitzarmena sinatu du, honek kontratazio prozeduraren izapidetzearen ardura har dezan.

Kontratuaren CPVa honako hau da: 55900000-9 txikizkako merkataritza-zerbitzu.

2. ARAUBIDE JURIDIKOA

Herri-jabariko ondasunen erabilera pribatiborako emakidak eman egingo dira, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 78. artikulua.

Kontratua prozedura ireki supersinplifikatu bidez esleitzeko espediente arrunta izapidetzen da, SPKLren 159.6 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Emakida jabetza-eskubidea izan ezik egiten da, hirugarrenen kalterik gabe, eta horrek ez du esan nahi emakidaren xede den gunea gaineko jabari publikoa edo jabari-ahalmenak lagatzen direnik.

Emakidadunak bere kabuz erabili behar du emakidaren xede den eremua. Kontzesionarioak ezin izango du emakida, osorik edo zati batean, laga edo zergapetu, ez eta hirugarrenei laga ere, osorik edo zati batean eta edozein tituluren bidez. Horretarako, Udalak aldez aurretik berariazko baimena eman beharko du, eta lagapen-hartzaileak konpromisoa hartu beharko du baldintza-agiriko helburuak mantendu eta betetzeko.

3. KONTRATAZIO-ORGANOA

SPKLren 2. xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratazio hau egiteko eskumena Alkatetzari dagokio.

Aipatutako organoak dagokion administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena du, eta, ondorioz, kontratu hori interpretatzeko, kontratua gauzatzeak sortzen dituen zalantzak argitzeko, kontratua aldatzeko eta kontratua suntsiaraztea

erabakitzeko prerrogatibak ditu, aplikatzekoa den araudiaren arabera. Gai horri buruz hartzen dituen erabakiak betearazleak izango dira, enpresa esleipendunak jurisdikzio eskudunean aurkaratzeko duen eskubideari kalterik egin gabe.

4. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute beren gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, baldin eta gaitasun ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute eta SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetako batean ere sartuta ez badaude.

Pertsona juridikoak beren estatutuen edo sortze-arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan sartzen diren prestazioak ematen dituzten kontratuen esleipendun izan ahal izango dira soilik, eta kontratua behar bezala gauzatzeko baliabide pertsonal eta material nahikoak dituen antolaketa izan beharko dute.

Era berean, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta egin ahal izango dute, horretarako emandako ahalorde nahikoaren bidez. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa haren kideren bat agertzen bada, horretarako ahalmena duela justifikatu beharko du agiri bidez. Kasu batean zein bestean, aipatutako kontratatzeko ezintasun-arrazoiek eragiten diote ordezkariari.

Prozedura izapidetzen ari den bitartean eta esleipena egin aurretik enpresa lizitatzailearen nortasun juridikoa iraungitzen bada bat egiteagatik, zatitzeagatik edo enpresa-ondarea eskualdatzeagatik, prozeduran sozietate xurgatzailea, bat-egitearen ondoriozkoa, zatiketaren onuraduna edo ondarearen eskuratzailea izango da haren ordezkoa, betiere kontratatzeko gaitasunaren eta debekurik ezaren baldintzak betetzen baditu eta baldintza-agirietan eskatutako sailkapena eta/edo kaudimena egiaztatzen baditu.

Prozedura ireki supersinplifikatua denez, ez da kaudimena egiaztatzea eskatuko.

5. EMAKIDAREN IRAUPENA

Emakidaren iraupena denboraldi batekoa (1) izango da, jarraian adierazitako egunetan.

EDUKIA	TOKIA	FETXA
Azpeitiko kiroldegiko kantinaren ustiapena	Azpeitiko Udal Kiroldegia	Ekainetik irailera (3 hilabete)

Administrazioak edozein unetan ezeztatu ahal izango du emakida, bere kabuz, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, baldin eta gerora onartutako araudia-

rekin bateraezina bada, jabari publikoan kalteak eragiten baditu, interes publiko handiagoko jardueretarako erabiltzea eragozten badu edo erabilera publikoa kaltetzen badu.

6. BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia 450 € koa da.

7. KANONA ETA BERRIKUSPENA

- Eskaintzan lizitatzen dutenek gorantz hobetu dezaketen gutxieneko kanona, denboraldi bakoitzean emakidadunak ordaindu beharrekoa, honako hau izango da:

EDUKIA	TOKIA	KANONA
Azpeitiko kiroldegiko kantinaren ustiapena	Azpeitiko Udal Kiroldegia	450 euro

Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik (adibidez, Covid 19ak sortutako egoera) ustiapena ezin bada emandako epean egin, kanona proportzionalki murriztu ahal izango da.

Lizitaziotik ateratzen den urteko kanona Kirol Patronatuaren 2095 5029 12 1061207568.KUTXABANK kontu korrontean sartuz ordainduko da.

Kanona ordaintzen ez bada, emakidaren ebazpena emango da.

8.EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

8.1.-Enpresa kontratistaren betebehar sozialak lanaren, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan.

1.- Enpresa esleipendunak aurkeztu behar du, kontratatutako jarduerari hasiera eman aurretik, kontratua egikaritzera bideratutako langileen zerrenda, eta, aldi berean, egiaztatu beharko du haiek Gizarte Segurantzan alta emanda eta afiliatuta daudela.

Horren ordez, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, data horretan kontratua betetzen arituko diren langileak kontratupean ez izanari buruz eta haiek kontratatzen dituenean haien guztien afiliazio eta alta egiaztatzeko konpromisoari buruz, hori guztia kontratupeko jarduera hasi aurretik.

2.- Enpresak kontratuaren objektuari atxikiko dituen langile berriak kontratatzen dituenean, behartuta egongo da entitate kontratatzaileari informazio eta dokumentazio hau ematera:

- Gizarte Segurantzako afiliazioa eta alta.

- Kontratuen modalitatea, objektua, kategoria edo talde profesionala eta lan-saioa.
- Urteko soldata gordina (ordainsarien kontzeptuen arabera xehatuta).
- Hala badagokio, hitzarmen kolektibo aplikagarria eta indarrean dauden itun aplikagarriak.
- Behar denean, lan horretarako gaitzen duen titulazio akademikoa.

3.- Enpresa kontratistak kontratuaren arduradunari bidaliko dio, hilero, kontratuari atxikitako langile guztien eta hari lotutako gainerako pertsona fisiko eta juridiko guztien zerrenda, bai eta langileen soldaten eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketaren egiaztagiriak ere.

4.- Kontratuaren baldintzak betetzen ari direla egiaztatzeko, kontratazio organoak beharrezko informazio pertsonal egokia bakarrik eskuratu ahal izango du, gehiegizkoa izan gabe eta datuen kalitate printzipiora egokituta, betiere datu babesaren legerian jasotako printzipioak betez.

5.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

8.2 -Gauzatzeko hizkuntza-betebeharrak.

1.- Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarritako eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean araututako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren erregimenari lotuta dago, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere erakunde autonomoen jarduera-eremuan euskararen erabilera normalizatzeko indarrean dagoen planari ere.

2.- Ezaugarrien koadroan besterik adierazi ezean, enpresa esleipendunak bi hizkuntza ofizialetan emango ditu kontratuaren xede diren azterlanak, txostenak, proiektuak edo bestelako lanak, softwareen testu- eta soinu-interfazeak barne.

3.- Diseinu eta jarduera guztiek planteamendu elebiduna izan behar dute, euskaraz eta gaztelaniaz, kasu jakin batzuetan izan ezik, non eta ez den komenigarritzat jotzen euskara lehentasunez erabiltzea, planteatzen den ekintzaren ezaugarrien eta xede duen herritar-segmentuaren arabera.

4.- Errotuluetan, argitalpenetan, seinaleetan, abisuetan eta komunikazioetan eta, oro har, solaskideetan euskararen erabilera bermatuko da.

5.- Hirugarrenekin edo, oro har, herritarrekin harremanak izatea eskatzen duten kontratuetan, kontratua gauzatzeaz arduratzen den enpresaren eta kontratua gauzatzean harremanak izango dituzten hartzaileen arteko ahozko zein

idatzizko komunikazioan erabiliko den hizkuntza erabiltzaileak edo, kasu bakoitzean, hirugarren pertsonak aukeratzen duena izango da. Berariaz inolako aukerarik agertzen ez bada, esleipenaren ardura duen enpresak pertsona fisiko edo juridikoei egiten dizkien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira. Nolanahi ere, herritarrak edozein unetan baliatu ahal izango du hizkuntza aukeratzeko eskubidea, eta hizkuntza ofizial bakar bat erabiltzea eskatu ahal izango du.

8.3- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko betebeharrak.

berdintasuna bermatzeko neurriak ezarri beharko ditu arlo hauetan: lanpostua eskuratzeko aukerak; sailkapen pertsonala; sustapena; iraupena; prestakuntza; lansariak; kalitatea eta lan egonkortasuna; jardunaldiaren iraupena eta antolaketa; baita kontratuari atxikitako langileen familia bizitza, lan bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak ere, hain zuzen ere martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak xedatutako moduan.

2.- Enpresa adjudikaziodunak hizkera ez-sexista erabili beharko du kontratu hau egikaritzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rol zein identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

3.- Enpresa edo entitate adjudikaziodunak bermatuko du sexu jazarpena eta sexu arrazoiek eragindako jazarpena prebenitzeko behar diren neurriak hartzen direla, hamar langiletik gora arituko diren kontratuetan.

9.-KONTRATUKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

9.1.- Kontratu-betebehar funtsezkoak, SPKLren 211. artikuluko 1. paragrafoko f) idatz-zatian aurreikusitakoarekin bat etorriz kontratua suntsiarazteko arrazoi direnak:

. 1.- Kontratua betetzeko zehatz-mehatz segituko dira klausula agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian jasotako klausulak, eta interpretatzeko unean jarraitu egin beharko dira kontratuaren arduradunak kontratistari emandako jarraibideak.

2.- Adjudikaziodunaren erantzukizuna izango dira zerbitzuaren kalitatea, bai eta kontratua betetzerakoan Administrazioarentzat edo hirugarren pertsonentzat huts, akats, metodo desegoki edo ondorio okerretatik sortzen diren ondorioak ere.

3.- Pertsona edo enpresa kontratistak lantalde eta langile egokiekin eman beharko du zerbitzua, eta lanen martxak noiznahi sortzen dituen premiei behar bezala erantzun. Bere eskaintzan aipatutako bitarteko teknikoak ere jarriko ditu eta, oro har, lanak ondo egiteko behar diren guztiak.

4.- Nolanahi ere, kontratistak erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko du, balizko kalteen erantzukizuna estaltzeko. Enpresa adjudikaziodunak aseguru kontratu horren kopia aurkeztu beharko du, bai eta kontratu hori sinatu aurretik ordaindutako azken ordainagiriaren kopia ere. Gainera, baldin eta ezaugarri taularen 24. atalean hala jasotzen bada, aipatutako estaldurak ziurtatu eta han zehaztutako aseguru osagarriak izan beharko ditu.

Nolanahi ere, kontratistak ordainduko ditu kalte-galerak, aseguru polizetako mugak gainditzen dituen zatian eta polizek estali gabeko ondasunetan eta arriskuetan.

9.2. Plegu teknikoan ezarritako betekizunak betetzea.

9.3. Exekuzio baldintza bereziak betetzea.

10. BERMEAK

Ez da behin betiko bermerik beharko.

II.- KONTRATUA ESLEITZEA

11.ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu hau prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleituko da, hainbat eslei-pen-irizpide erabiliz, kalitatea-prezioa erlazio hobean oinarrituta.

Kontratua esleitzeko oinarri izan behar duten irizpideak, garrantziaren arabera goitik behera eta ematen zaien haztapenaren arabera, honako hauek dira:

11.1. Formula bidez ebaluatzeko irizpideak. Gehienez 100 puntu

FORMULEN BIDEZ EBALUATZEKO IRIZPIDEAK: GEHIENEZ 100 PUNTU (1. ARTXIBOAN SARTU BEHARREKOAK)

Hauek dira emakida esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak lote guztieta-rako:

A) Eskainitako kanon handiena, 100 puntura arte Pleguetan ezarritako kanonari eustea.

Gehieneko puntuazioa emango zaio kanonik handienari, eta 0 puntu eskaintza aurkezten den lizitazio-kanonarekin bat datorren eskaintzari. Gainerakoa muturreko balio hauen arabera baloratuko da:

$$\text{Puntuazioa} = 100 \times \frac{\text{Eskainitako kanona}}{\text{Eskainitako kanon nagusia}}$$

12.ESKAINTZEN AURKEZPENA

1.- Proposamenak lizitazio elektronikoz egingo dira.

a) www.contratacion.euskadi.eus lizitazio elektronikoko plataformaren bidez, 2024ko APIRILAREN 2rarte 23:59ak arte, aipatutako iragarkia Azpeitiko Udalaren Kontratatzailearen Profilean agertzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

2.- Agiriak, jakinarazpenak eta komunikazioak plegu honen I. eranskinean jasotakoaren arabera bidaliko dira.

3.- Plegu honetako klausula honetan adierazitako atalak kontuan hartuta izendatuko dira agiriak, ARTXIBO ELEKTRONIKO bakarrean sartu beharreko dokumentu-eduki gisa. Eskaintzak fisikoki aurkezten badira, gutun-azal itxi bat aurkeztuko da.

4.- Proposamenak isilpekoak izango dira, eta, horretarako, izaera hori bermatzen duten bitartekoak jarriko dira lizitazio publikoa egin arte.

Ezin izango da beste batzuekin aldi baterako elkartean proposamenik aurkeztu banaka egin bada, edo aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertu ahal izango da.

Lizitatzaileek pleguei edo, hala badagokio, dokumentazio osagarriari buruz eskatzen duten informazio gehigarria proposamenak jasotzeko ezarritako epemuga baino sei egun lehenago emango da, betiere eskaera proposamenak jasotzeko epea amaitu baino zortzi egun lehenago egin bada.

Lizitatzaileek ARTXIBO ELEKTRONIKO bakarra aurkeztu beharko dute (lizitazio elektronikoaren kasuan/KARTAZAL BAT , zeinean honako hauek jasoko baitira:

a) **Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB).** SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, II. eranskinean jasotako jarraibideen arabera bete beharrekoa, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta, eta bertan adierazitako inprimaki-ereduari egokituta.

Ezaugarrien taulan kontratuaren xedea loteka zatitzea aurreikusten denean, ekonomia- eta finantza-kaudimenaren edo gaitasun tekniko eta profesionalaren eskakizunak lote batetik bestera aldatzen badira, EKAB bat aurkeztuko da kaudimen-baldintza berberak aplikatzen zaizkion lote edo lote-multzo bakoitzeko.

b) **Aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio**. Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera aldi baterako elkarte bat eratzera doazenean, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute, honako hauek

adieraziz: elkarte hori sinatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak, enpresa bakoitzaren partaidetza, eta aldi baterako elkarte formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela, esleipendun izanez gero (SPKL 69 eta APKLEO 24). Batasuna osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute agiri hori. Kasu horietan, enpresa bakoitzak bere EKAB aurkeztu beharko du. Agiri honen III. eranskinean aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoaren eredua jasotzen da.

c) **Giza baliabideak eta baliabide materialak kontratua gauzatzeari atxikitzeko erantzukizunpeko adierazpena**. Plegu honen **IV. eranskinean** erantsi da eredua.

d) **Azpeitiko Udalaren kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide-kodea** eta erakundearen ekitate-esparrua betetzeari buruzko adierazpena. Adierazpen hori baldintza-agiri honen **VI. eranskinean** jasotako ereduaren araberakoa izango da.

e) **Lizitatzaileen dokumentu eta datu konfidentzialen aitorpena**. Enpresa lizitatzaileek adierazi beharko dute, hala badagokio, zein dokumentu administratibo eta tekniko eta datu diren, beren ustez, konfidentzialak. Gainera, inguruabar hori adierazi beharko da (gaininprimatuta, bazterrean edo beste edozein modutan) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan. Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat jo daitezke, baldin eta hirugarren pertsona edo erakundeei zabaltzea haien bidezko merkataritza-interesen aurkakoa bada edo enpresen arteko lehia leialari kalte egin badiezaioke. Adierazpen hori aurkezten ez bada, agiri edo datu bakar batek ere ez duela izaera hori ulertuko da. Plegu honen **VII. eranskinean** erantsi da eredua.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, parte hartzen duten enpresetako batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte behin-behineko bermeak, baldin eta, oro har, ezaugarrien koadroko 18. paragrafoan eskatutako zenbatekora iristen badira eta elkartasunez bermatzen badituzte aldi baterako elkarteko kide guztiak.

f) Espezialitateak atzerriko lizitatzaileek aurkeztu behar dituzten agirietan. Atzerriko lizitatzaileek, aurreko a) letran aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenaz gain, ondoren zehazten den dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko dute.
Espainiakoak ez diren enpresa guztiek ekarpen hauek egin behar dituzte:

- Kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla dioen adierazpena, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez (SPKLren 140.1 f) artikulua).

Europar Batasuneko kide ez diren edo Europako Esparru Bakarrari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresek honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresaren egoitzako Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorrak edo Bulego Kontsularrak emandako txostena, enpresak aldez aurretik egiaztatuta, tokiko erregistro profesional, komertzial edo antzekoan inskribatuta dagoela edo, halakorik ezean, kontratuaren xedearen xede diren jardueren eremuan tokiko trafikoan ohikotasunez jarduten duela jasotzen duena.

- Elkarrekikotasun-txostena, SPKLren 68. artikuluak aipatzen duena, salbu eta erregulazio harmonizatupeko kontratuak badira; kasu horretan, Ekonomia Ministerioaren Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren txosten batekin ordezkatuko da, Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatu izaerari buruzkoa.

2.- Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango du lizitatzaileek baldintza horiek erantzukizunez betetzen dituztela adierazteko aurkeztu dituzten baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak.

Lizitatzaileak 10 egun balioduneko epean aurkeztu beharko du eskatutako dokumentazioa, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta prozeduratik kanpo geratuko da.

h) **ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA ESKAINTZA EBALUAGARRIAREN BESTE ELEMENTU BATZUK**. Honako agiri hauek izango ditu:

Irizpide baloragarriari buruzko proposamen ekonomikoa sartuko da, plegu honen 8.1 atalean aipatzen diren zifra edo ehunekoetan. Proposamena orri hauetako **VIII. eranskinean** ezarritako ereduaren araberakoa izango da.

13. DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, Kontratazio Mahaiak, jendaurreko ekitaldian bilduta, 1. Artxiboa irekiko du (eta bertan jasotako eskaintza ekonomikoak irakurriko ditu).

1. Artxiboa irekitzeko ekitaldi publikoa Azpeitiko Udalaren kontratatzailearen profilean adierazitako tokian eta egunetan egingo da.

Lehenik eta behin, garaiz eta behar bezala sailkatuko da jasotako dokumentazioa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den bezala.

Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu ondoren, eta, hala badagokio, antzemandako akatsak edo omisioak zuzendu ondoren, lizitaziorako onartutakoei, baztertutakoei eta atzera botatzeko arrazoiei buruzko berariazko erabakia hartuko da.

Kontratazio Mahaiak beharrezkotzat jotzen badu, 1. Artxiboa bidaltzea erabakiko du, udal-teknikariek azter ditzaten eta formula aritmetikoen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko txostena egin dezaten.

Kontratazio Mahaiak kontratua esleitzeko proposamena aurkeztuko dio Alkatetzari.

14. KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratuaren esleipena gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko da, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita. Epe hori esleipenik egin gabe igaroz gero, lizitatzaileek beren eskaintzak erretiratu ahal izango dituzte.

Nolanahi ere, esleipena eman beharko da, baldin eta aurkeztutako eskaintzetako batek klausula-agirian eskatutako baldintzak betetzen baditu, eta kasu horretan ezin izango da lizitazioa esleitu gabe utzi.

Hala ere, SPKLren 152. artikuluan aurreikusitako moduan, Kontratazio Organoak, esleipena eman aurretik, kontratua egiteari uko egin ahal izango dio interes publikoko arrazoiengatik, edo izapidetutako prozeduran atzera egin ahal izango du, zuzendu ezin diren akatsak dituenean.

Kontratuaren esleipena arrazoitu egin beharko da, lizitatu dutenei jakinaraziko zaie, eta, aldi berean, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio Mahaiaren proposamena ikusita, eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileari errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bost egun balioduneko epean honako inguruabar hauek egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaio:

a) Nortasun Agiri Nazionala, enpresa lizitatzaileak bere izenean jarduten badu. Beste pertsona edo erakunde baten izenean jarduten bada, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalorde askietsia.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa-eskritura edo, hala badagokio, aldaketa-eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, inskripzioa aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera eska daitekeenean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna eratze-eskrituraren edo -agiriaren, estatutuen edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da, jarduera arautzen duten arauak jasota, eta, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta. Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez-espainiarrak direnean, dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, ezarrita dauden estatuko legediaren arabera, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztuta, aplikatzekoak diren Erkidegoko xedapenen arabera.

c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

d) EJZn, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria, indarrean dagoen ekitaldiari dagokionez, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Kasu bietan, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

e) Dagokion instalaziorako arau teknikoak eta jarraibideak onartzen dituela adierazten duen zinpeko aitorpena.

f) Instalazioaren erantzukizun zibileko polizaren kopia, gutxienez zenbateko honekin:- 100.000,00 €

g) Erakunde antolatzaileak Eusko Jaurlaritzaren Ikuskizunen Legea eta Azpeitiko Udalak ezarritako araudia bete beharko ditu, eta ondoren adierazten diren agiriak aurkeztu beharko ditu:

- Osasunari eta higieneari buruzko udal-araudia betetzea (hala eskatzen duten instalazioetan).

- Zerga-lizentzia eguneratua.

Esleipena aurreko bost eguneko epea amaitu eta hurrengo hiru egun baliodunetan egingo da, baldin eta enpresa lizitatzaileak adierazitako dokumentazioa aurkeztu eta, nahitaezkoa denean, behin betiko bermea eratu badu.

Adierazitako epean errekerimendua behar bezala ez betetzeagatik esleipena bidezkoa ez denean, beste deialdi bat egin aurretik, Administrazioak hurrengo lizitatzaileari edo lizitatzaileei beste esleipen bat egin ahal izango die, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera, betiere hori posible bada eta enpresa esleipendun berriak adostasuna adierazi badu. Kasu horretan, hamar egun balioduneko epea emango zaio lizitatzaileari arestian adierazitakoa betetzeko.

Artikuluan aurreikusitakoaren babesean. SPKLren 152.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratua egiteari uko egiten bazaio edo esleipenaren aurretik kontratazio-organoak prozedura horretan atzera egiten badu, lizitazioak lizitatu dutenei eragindako gastuak administrazio honek konpentsatuko ditu, horiek entzun eta justifikatu ondoren.

Aurkeztutako proposamenak, bai onartutzat jo direnak, bai ireki gabe baztertu direnak, bai ireki ondoren ezetsi direnak, espedientean artxibatuko dira. Kontratua esleitu eta errekurtsoak jartzeko epeak igaro eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, proposamenekin batera doazen agiriak interesdunen esku geratuko dira.

Agiri horiek interesdunen eskura jartzen direnetik hilabeteko epea igaro ondoren, pertsona edo enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa

suntsitzea erabaki ahal izango du Administrazioak, pertsona edo enpresa lizitatzaileek dokumentazio hori kendu ez badute.

15. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzeko, enpresa kontratistak esleipen-ebazpenaren onarpena sinatuko du.

Halaber, emakidadunak, instalazioak muntatu ondoren eta emakida ebatzi eta gehienez 5 eguneko epean, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

III. KONTRATUA GAUZATZEA

16. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratu honetan, SPKLren 62. artikuluan xedatutakoaren arabera, Azpeitiko Kirol Patronatuko arduraduna izendatzen da kontratua gauzatzeko arduradun.

17. EMAKIDADUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

- Baimendutako jarduera gauzatzeko esleitutako jabari publikoa erabiltzea eta erabilera eta gozamen horretan mantentzea. -Baimenaren xedea errespetatzea eta, ondorioz, herri-jabariko emakidan berariaz baimendutako jarduera soilik gauzatzea.

- Kirol Patronatuak instalazioak jartzeko esleitutako lekua errespetatzea. Emakidan berariaz baimendu ez diren ibilgailuak edo elementuak ezin izango dira inola ere instalatu.

- Udal Zerbitzu Teknikoa arduratuko da instalazioak (ura, hustubidea eta koadro elektrikoa) muntatzeko behar diren hornidurei buruzko informazioa emateaz.

- Ura eta elektrizitatea instalatzeko eta hornitzeko gastuak emakidadunak ordainduko ditu.

- Hondakinak sortzen dituen zerbitzu bat ustiatuz gero, emakidadunak hondakinak sailkatu egin beharko ditu, hondakinak askatzerakoan hondakin mota bakoitza dagokion edukiontzian uzteko. Inola ere ezingo da inolako isurketarik egin (harraska, garbiketak, komunak) estolderia-sarean.

- Saneamendu-sarea erabili behar izanez gero, emakidadunak uneoro errespetatu beharko du Herri Lan, Azpiegitura eta Zerbitzu Sailak adierazten diona.

- Zerbitzua modu arduratsu eta egokian ematea erabiltzaileentzat. Instalazioak egoera edo itxura dotorea eta antolatua izan beharko du, gainerako erabiltzaileei eragozpenik ez eragiteko. Beti errespetatuko da bide publikoa garbitzea eta zaintzea.

- Hizkuntzaren erabilerari buruzko betebeharrak

1.- Kartelak euskarazko edo euskarazko piktogramak edo testuak izango dituzte, edo euskarazkoak eta gaztelaniazkoak; azken kasu horretan, euskarari emango zaio lehentasuna.

- Kartelak aldez aurretik bidaliko zaizkio Euskara Sailari, enpresa esleipendunari aholkuak eman diezazkion.

- Kartelak aldez aurretik bidaliko zaizkio Euskara Sailari, enpresa esleipendunari aholkuak eman diezazkion.

2. Langileek euskaraz agurtuko dituzte pertsonak, arreta berezia jarriz haurrekiko harremanean.

3.- Emandako zerbitzua euskaraz erabili nahi duten pertsonen eskubidea izango da.

- Ezin izango da, inola ere, iragarkirik, kartelik edo eranskailurik jarri hiri-altzari edo fatxadetako ezein elementutan; hiribilduko puntu desberdinetan horretarako jarritako lekuak bakarrik erabili beharko dira. Kartelak jartzeko bionboak erabiltzen badira, gurutzaketetan ikuspena ez oztopatzea hartuko da kontuan. Herri Lan, Azpiegitura eta Zerbitzu Sailak planoak ditu, eta horietan zehazten da zein den planorik egokiena. Lagapen-hartzaileak propaganda mugikorra kendu beharko du jarduketen ondoren.

Ordutegia:11:00tik 20:00ra

Nolanahi ere, ordutegiak Kirol Patronatuaren jarraibideetara eta, hala badagokio, osasun-krisia dela-eta hartzen diren neurrietara egokituko dira.

- Eskatzailearen inguruabar berezietan oinarrituta ematen den baimena denez, ezin izango dira eskualdatu, Kirol Patronatuaren berariazko baimena izan ezean.

- Emakidadunak baimendutako jardueraren ondorioz pertsona edo ondasunetan eragin ditzakeen kalte eta kalteen erantzukizuna. Horretarako, gutxienez 100.000,00 euroko estaldura izango duen aseguru-poliza bat kontratatuko du.

- Instalazio elektrikoak instalatu, muntatu, ustiatu eta desmuntatzearen ondoriozko gastuak ordaintzea, bai eta instalazio horiek egoera onean kontserbatzearen ondoriozkoak ere, edo agiri honetan aipatzen diren baldintzetatik eratorritakoak, eta baimendutako jarduera gauzatzeagatik dagozkion administrazio-, zerga- eta lan-arloko betebeharrak betetzea.

- Emakidadunak ezin izango du, inola ere, Kirol Patronatuarekin adostu ez den elementurik kendu edo mugitu ekipamendu publikotik.

18. INSTALAZIOEN SEGURTASUN- ETA HIGIENE-BALDINTZAK

a) Jardueran aritzeko edozein tresna elektriko erabiltzeko, aldez aurretik Kirol Patronatuaren baimena beharko da. Jardueran aritzeko instalazio elektrikoak behar badira, instalatzaile baimendu batek egingo ditu, 2002ko abuztuko Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoko baldintzak errespetatuz. Instalazioaren egitura, ahal dela, material isolatzailezkoa izango da, eta, nolanahi ere, zati metalikoak eta tresna elektrikoak behar bezala konektatuta egongo dira LURRARI.

b) Jarduera hasi aurretik, Kirol Patronatuak izendatutako langileek instalazioaren ikuskapen teknikoa, sanitarioa eta ingurumenekoa egingo dute. Jarduera ezin izango da inola ere hasi instalazioen egoera aldez aurretik egiaztatzen ez bada.

c) Jardueraren garapenak sortutako hondakinak egunero kentzea. Pilatutako hondakinak behar bezala sailkatu eta hiri-hondakin solidoak dagokien edukiontzietan utziko dira 23:00ak baino lehen. Gainerako hondakinak gaikako bilketarako dagozkien edukiontzietan sartu ondoren sailkatuko dira.

19. EMAKIDA AMAITZEKO KASUAK

Emakida azkenduko da:

• Epea igarotzea.
• Emakidadunaren heriotza edo uko egitea.
• Arau-hauste oso astunagatik ezarritako zehapena.
• Ondasuna jaregitea.
• Emakida ezeztatzea.
• Ebazpen judiziala.
• Urteko kanona ez ordaintzea, agiri hauetan ezarritakoaren arabera.

20. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Arau-hauste arinak izango dira:

- Emakidadunaren betebeharrak betetzeko atzerapenak.
- Oro har aplikatu beharreko araudia eta, bereziki, Udalaren ebazpenak ez betetzea.
- Kirol Patronatuaren ikuskaritzapean ez egotea.
- Berariaz larritzat edo oso larritzat jotzen ez den beste edozein ekintza edo ez-egite.

Arau-hauste arinak 100 euroko isunarekin zehatuko dira.

Arau-hauste larriak izango dira:

- Bi arau-hauste arin errepikatzea.

- Emakidadunaren jarduna, jabari publikoaren edo instalazioen balio-galera eragiten duena.
- Emandako jabari publikoaren erabilera anormala.
- Baimendutakoa ez den beste jarduera bat egitea.
- Jardueraren ordutegiak edo, halakorik ezean, Kirol Patronatuak ezarritakoak ez betetzea.

Arau-hauste larriak 300 euroko isunarekin zehatuko dira.

Arau-hauste oso larriak izango dira:

- Bi arau-hauste larri errepikatzea.
- Erabiltzaileekiko tratuan errespeturik ez izatea, instalazioetan duintasunik eta osasungarritasunik ez izatea.
- Garrantziagatik edo garrantziagatik gizartean alarma sortzen duen edo interes publikoaren aurka larriki egiten duen beste edozein.
- Garbiketa-hondarrak, komunak eta harraskak estolderia-sarean isurtzea.

Arau-hauste oso larriak 500 euroko isunarekin zehatuko dira, eta emakida azkendu egingo da.

Falta arinagatiko zehapena ezartzeko, espediente sumarioa beharko da, eta espediente horretan arau-hausleari entzun beharko zaio. Falta astunagatiko edo oso astunagatiko arau-hausteak Administrazioaren zehatzeko ahala baliatzeko prozeduraren erregelamenduan ezarritakoaren arabera zehatuko dira.

21. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Administrazioari dagozkio kontratua interpretatzeko prerrogatibak, kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzekoak, interes publikoko arrazoiak direla-eta kontratua aldatzekoak, kontratua suntsiaraztea erabakitzekoak eta suntsiaraztearen ondorioak zehaztekoak, SPKLn eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen, baldintzen eta ondorioen arabera.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

22. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Baldintza-agiri honetan aurreikusi ez den guztirako, honako hau bete beharko da:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- Sektore Publikoko Kontratuen Legea.
- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena;
- Eta arlo horretan indarrean dauden gainerako xedapenak.

23. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik eratortzen diren auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende daudela ulertuko da; hala ere, alderdiek erabaki dezakete beren auziak arbitrajearen mende jartzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Kontratuaren interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sortzen diren auziak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Haren erabakiek administrazio-bidea amaituko dute, eta horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legean aurreikusitakoaren arabera. Nolanahi ere, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 5eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki.

24.KONTRATAZIO MAHAIA

MAHAIBURUA: LEIRE GOENAGA(Gizarte Zerbitzuen zinegotzia)

MAHAIBURUORDEA ETA 1. BOKALA: MARISOL ODRIOZOLA AIZPURU.(Kontu-hartzailea)

2. BOKALA: OLATZ EIZAGUIRRE ORBEGOZO (Udaletxeko idazkaria)

3. BOKALA:IRATI ALCORTA GARCIA (Administrazioko teknikaria)

4. BOKALA: ANDER UNZALU BALENTZIAGA (Administrazioko teknikaria)

IDAZKARIA: OLATZ EIZAGUIRRE ORBEGOZO (Udaletxeko idazkaria)

Azpeitian 2024ko martxoaren 19an

Nagore Alkorta Elorza
Alkatea



I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA

1. **Kontratazio prozeduretako izapideetarako lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko beharkizunak**

1.1. **Administrazio beharkizunak:**

a) Ziurtagiri digital bat izatea, lizitazio elektronikorako sisteman identifikazio eta sinadurarako bitarteko gisa onartuta dagoena. Gaur egun, honako hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:
   - Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria)
   - FMNT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria)
   - Nortasun agiri nazional elektronikoa
   - Camerfirma (entitatea, herritarra)

   Baimendutako ziurtagirien zerrendak aldaketak izan ditzake. Lizitazio elektronikorako sistemara sartzeko atariak momentu oro baimendutako ziurtagiri elektronikoen zerrenda eguneratua erakutsiko du.
   Entitate motako ziurtagiria berritzerik ez badago ere, posible izango da horiek erabiltzea iraungi bitartean edo horiek baliogabetu arte.

b) Egoera hauetako batean egotea:
   a) Alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan
   b) Alta emanda egotea lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntzako sisteman
   c) Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa (ABEE) eratzeko konpromisoa hartuta, ABEEaren konpromisoa aldi baterako gaikuntzako sisteman erregistratuta egon beharko da.

1.2. **Beharkizun teknikoak:**

Elektronikoki lizitatzeko beharkizun teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke: http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/eu/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/eu_02/requisitos_tecnicos.html

2. **Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua:**
Sistema erabili ahal izateko, atari honetan sartu beharko da:
https://www6.euskadi.net/lizitazioa/

Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua:

945 016 298

II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Euskadiko kontratazio publikoaren egoitza elektronikoaren bidez egingo dira, helbide honetan: http://www.contratacion.euskadi.eus/informacion-general-licitacion-electronica/w32-kpelicel/es/ .
Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek **I. eranskin** honen **gehigarrian** horretarako zehaztutako helbide elektronikora.

Azpeitiko Udala

I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

** Aldi baterako enpresa elkartea bada, eredua egokitu egin behar da, aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko*

ADIERAZTEN DU(TE)

Kontratua (*izena eta espediente kodea*) adjudikatzeko prozedurari buruzko jakinarazpen eta komunikazioen ondorioetarako:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena **Erreferentzia kodea**

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoetarako datuak honako hauek dira [1]:

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK

Kalea, plaza, hiribidea… **Zk.** **Solairua** **Eskua**

Udalerria **P.K.** **Probintzia**

Telefono finkoa **Mugikorra**

Abisuetarako helbide elektronikoa:

Hartzailea:

Jakinarazpena edo komunikazioa jasotzeko aukeratutako hizkuntza: Euskara ☐ Gaztelania ☐

[1] *Hainbat enpresak adjudikaziodun izanez gero formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa eratzeko konpromisoa aurkezten badute, jakinarazpen eta komunikazioetarako helbide bakar bat aurkeztu beharko dute.*

II. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA EKAB BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1.- Lizitatzaileak EKABa aurkeztea hark lizitazio prozedura honetan parte hartu ahal izateko klausula agiri honetan zehazten diren AURRETIAZKO BEHARKIZUNAK BETETZEN dituelako aurretiazko froga da.

Enpresen egoera finantzarioari, gaitasunei eta kontratazio publikorako prozedura batean parte hartzeko egokitasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena da Europako Kontratazio Agiri Bakarra EKAB, eta lizitatzaileek agiri hori aurkeztu beharko dute, SPKLren 140. artikuluarekin eta agiriaren formulario normalizatua eta betetzeko jarraibideak ezartzen dituen urtarrilaren 5eko 2016/7 Batzordearen Betetze Erregelamenduarekin (EB) bat.

Kontratazio organoak bere ahalmenak erabili ahal izango ditu, BAT zenbakiko artxibo elektronikoan aurrez aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko, horretarako beharrezko frogagiriak aurkeztea eskatuz, 39/2015 Legearen 69. artikuluak jasotzen dituen baldintzetan betiere.

Edonola ere, lizitatzaileak EKAB aurkezten badu konpromiso bat hartzen du bere gain, kontratuaren adjudikazioa aldekoa badu EKAB agiriak ordezkatzen dituen frogagiriak aurkeztekoa zehazki, **33.2 klausulan** aurreikusiarekin bat.

2.- EKABen formulario normalizatua.

EKABen formulario normalizatua lizitatzaileen eskura dago honako helbide elektroniko honetan: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es.

3.- Jarraibideak.

Dokumentuan adierazten diren beharkizun guztiak bete egin behar dira, edonola ere, lizitazio epearen azken egunean, kontratatzeko galarazpenak izan ezik, horiek kontratua formalizatu arte segitu behar baitute gutxienez. Administrazioak egiaztapenak egin ahal izango ditu, betiere, prozedurako edozein unetan.

Adierazpenak behar besteko ahala duen batek sinatuta egon behar du.

Kontratuaren gaia **sortatan zatitzea** aurreikusten denean, baldin eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko beharkizunak sortatik sortara aldatzen badira, Europako kontratazio agiri bakar bat aurkeztuko da kaudimen beharkizun berberak aplikatzen zaizkion sorta bakoitzeko edo sorta talde bakoitzeko.

Eskatzen den bitarteko atxikipena kanpo bitartekoz betetzen badu lizitatzaileak, honek bere EKAB aurkeztu beharko du, eta EKAB bana, gainera, kontratua betetzeari atxikitako bitarteko bakoitzeko.

Enpresa batzuk **aldi baterako elkartea** eraturik aurkezten badira, elkartekide bakoitzak bere nortasun, gaitasun eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, eta guzti-guztiek dagokien EKAB formulario normalizatua aurkeztu beharko dute. EKAB formulario normalizatuaz eta ABEEa eratzeko konpromisoaz gain, edo, hala dagokionean, behin-behineko bermearen frogagiriaz gain, BAT zenbakiko artxibo elektronikoan lizitatzaileen adierazpena jaso beharko da, klausula agiri honetako **V. eranskineko** ereduarekin bat, enpresa talde batekoak diren ala ez adierazi beharko baitute horretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan edo estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan **izena emanda** dauden **enpresek** ez dute inskripzio horretan dagoeneko gaurkotuta dituzten datuak zertan eman, betiere zertzelada hori adierazten bada EKABen formulario normalizatuan. Edonola ere, lizitatzaileak berak ziurtatu behar du zer datu dauden egiaz jasota eta gaurkotuta eta zer datu ez. Eskatutako datu edo informazioetakoren bat ez dagoenean aipatutako lizitatzaileen erregistroetan jasota, edo horietan gaurkotuta ez badago, formularioa betez eman beharko da datu edo informazio hori.

EKAB formulario normalizatuaren erabilerari dagokionez, lizitatzaileek ondoko **dokumentu** hauek **kontsultatu ahal izango dituzte**:

- 2016/7 zk. Erregelamendua (EB), web honetan eskuragarri dagoena:

https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf

- Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen gomendioa, 2016ko apirilaren 6koa, helbide honetan eskuragarri dagoena:

http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/D.G.%20PATRIMONIO/Junta%20Consultiva/informes/Informes%202016/Recomendacion%20de%20la%20JCCA%20sobre%20el%20DEUC%20aprobada%20el%206%20abril%20de%202016%20_3_.pdf

4.- Prozedura honetarako formulario berezia duen XML artxiboa kontratatzailearen profilean dago.

Azpeitiko Udala

III. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

** Eredua egokitu behar da, adjudikaziodun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko*

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena **Erreferentzia kodea**

ADIERAZTEN DUTE

1. Konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa elkarte gisa formalki eratzeko, erreferentziako kontratuaren adjudikaziodun gertatuz gero, honako partaidetza portzentaje honekin:

Enpresaren izena	%

2. Honako hau izendatzen dutela enpresa elkartearen ordezkari edo ahaldun arrunt, kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak baliatu eta obligazioak betetzeko behar beste ahalmenez:

Izen-abizenak	

Tokia eta data:

Enpresaren izena

Sinadura

Enpresaren izena

Sinadura

Enpresaren izena

Sinadura

Azpeitiko Udala

IV. ERANSKINA.- BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISO ADIERAZPENAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena **Erreferentzia kodea**

ADIERAZTEN DU

Konpromisoa hartzen duela kontratua egikaritzeko behar diren bitarteko hauek atxikitzeko:

☐ **Giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa:**

☐ **Bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa:**

Azpeitiko Udala

V. ERANSKINA.- ENPRESA TALDEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena **Erreferentzia kodea**

ADIERAZTEN DU

Ordezkatzen duen enpresa:

☐ BADAGOELA Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean.

☐ EZ DAGOELA Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako inolako egoeratan.

Erantzuna baiezkoa bada:

☐ EZ du kontratuaren adjudikazioan parte hartzen, ordea, banakako proposamena aurkezten duen talde bereko beste inolako enpresarekin batera, ezta Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dagoen ezeinekin batera ere.

☐ BAI, kontratuaren adjudikazioan parte hartzen du banakako proposamena aurkezten duten talde bereko beste enpresa batzuekin edo Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dauden enpresekin batera; enpresa horiek honako hauek dira:

IFZ/IFK	Sozietate izena

***** Merkataritza Kodeko 42.1 artikulua: "Edozein sozietate taldetako sozietate nagusiak atal honetan aurreikusten den bezala eman behar ditu urteko kontu eta kudeaketa txosten finkatuak.

Azpeitiko Udala

VI. ERANSKINA.- KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE KODEA ETA ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN ESPARRUA BETETZEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena **Erreferentzia kodea**

ADIERAZTEN DU

Lehenengo: Konpromisoa hartzen duela Azpeitiako Udalaren **KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE KODEA ETA ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN ESPARRUA** eta ez duela ez inolako interes gatazkarik eta ez antzeko inolako harremanik beste lizitatzaile batzuekin edo proiektuan interesatutako beste alde batzuekin. Enpresak bere gain hartzen du kontratua betetzeko epean zehar egoera hori sortzen bada horren berri emateko botere adjudikatzaileari.

Azpeitiko Udala

VII. ERANSKINA.- KONFIDENTZIALTZAT JOTAKO DOKUMENTU ETA DATU AURKEZTUEI BURUZKO ADIERAZPEN OSAGARRIRAKO EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena **Erreferentzia kodea**

ADIERAZTEN DU

Sekretu tekniko edo komertzialekiko lotura dela eta, konfidentzialtzat jotzen dituela ondoren aipatzen diren eskaintzako **dokumentu, informazio eta alderdiak**: [2]

1.
2.
3.
……..…

Datu horiek konfidentzialak dira arrazoi hauengatik:

1.
2.
3.
……..…

[2] Konfidentzialtasun adierazpenak ezingo ditu hartu ez enpresak aurkeztutako dokumentazio guztia ez eskaintza teknikoko egiaztapen dokumentazio guztia. Kasu horretan, edo adierazpen horri neurri desegokia ematen bazaio, kontratazio organoak zehaztuko du zer datu edota dokumentu jo behar diren konfidentzial. Enpresak ez badu berariaz konfidentzial jotzen daturik edota dokumenturik, ulertuko da aurkeztu dituen datu edota dokumentuetan ez dagoela konfidentziala den batere. Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren ez da onartuko aurkezpenaren unean konfidentzial jo ez den daturik konfidentzial jotzea.

Azpeitiko Udala

VIII. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKORAKO ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUETARAKO EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena

Azpeitiko Udalak deitutako prozeduraren berri izan du. AZPEITIKO KIROL PATRONATUAREN KIROLDEGIKO KANTINAREN JABARI PUBLIKOKO ERABILERA PRIBATIBORAKO ADMINISTRAZIO-BAIMENA.

1) Onartutako pleguen arabera gauzatzeko konpromisoa hartzen dut, prezio honetan 450€tik gorako eskaintza egin beharko da:

URTE BATEKO kanona: _____€

2. Ezagutzen ditudala berariazko klausula administratiboen pleguak eta kontratua arautuko duten gainerako agiriak, eta berariaz onartzen eta onartzen ditudala.

3.- Indarrean dagoen araudiak kontratua gauzatzeko eskatzen dituen baldintza eta betebehar guztiak betetzen ditut.

4.- Era berean, lan eta zerga arloan araututakoa betetzera behartzen dut neure burua.

..... (e) n, 202…ko..... aren..... (e) (a) n.

Sin.: